

DEIALDIA

UDAJOLASEN ETA KIROL JARDUERETAN IZENA EMATEKO EPEA

Apirilaren 3tik 16ra bitartean Udalaren udako kirol eta aisialdiko jardueretan izena emateko aukera izango da haur zein helduentzat.

Informazio gehiago: www.usurbil.eus webgunean eta udal eraikinetan.



Apirilak 12, larunbata

Conopy (Igeldoko arborismoa), DBH-2koentzat.

Apirilak 14, astelehena

Sendaviva-ra irteera, DBH 1ekoentzat.

Informazio gehiagorako: gaztelekuausurbil@gmail.com helbidera idatzi edo 688 713838 telefonora deitu.

BISITA GIDATUAK



Apirilak 5, larunbata

Museo Irkia

Sutegi 11:00

Apirilak 18, ostirala

Museo Irkia

Sutegi 11:00 (gaztelaniaz)

Apirilak 19, larunbata

Salbatore Elizaren Ondarea organo erakustaldiarekin

Salbatore Eliza 11:00 (gaztelaniaz)

Apirilak 25, ostirala

Zaintzaren Usurbil

Udaletxea 10:00

Apirilak 30, asteazkena

Zero Zabor

Udaletxea 10:00

Sarrerak: <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>

Telefonoa: 747 485140

turismoa@650usurbilbizi.eus

KZ-GUNEKO IKASTAROAK



IKASTARO ETA MINTEGIAK

AURREZ AURREKOAK

• **X (Twitter) zure smartphonean.** (4 ordu)
Apirilak 01-02 16:00 - 18:00

• **Kudeatu zaitetz Google aplikazioekin.** (16 ordu)
Apirilak 03-14 16:00 - 18:00

• **Online izapideak Osakidetzarekin.** (4 ordu)
Apirilak 15-16 16:00 - 18:00

• **Canva. Ikasi diseinatzen.** (6 ordu)
Apirilak 28-30 16:00 - 18:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideo konferentzia eskaintza zabalda.

Irailean Kz-gunea: Arratsalde 16:00-20:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA



Goizez, 10:00-13:00	1	2	3	4	●	●
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30	7	8	9	10	●	●
Itxita	14	15	16	●	●	●
Goizez	●	22	23	24	●	●
	28	29	30	●	●	●

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>



Zuen deialdiak zabaltzeko, bidali hilaren 15a baino lehen kultura@usurbil.eus helbidera.



Usurbilgo Udala

Kultura, Euskara eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus



usurbilkultura.eus

Herritarren tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko



USURBIL KULTURA 2025eko apirila

☺	Asteazkena 17:00 Potxoenean	KAFE TERTULIA: PANTAILEN ERABILERAK KEZKATZEN AL ZAITU?	2
☘	Larunbata Egun osoko jaia	XII. DANTZA EGUNA	5
🎵	Igandea 19:00 Sutegiko auditoriumean	"AZTIA" PIEZA ESZENIKOA	6
☺	Asteartea 19:00 Potxoenean	HITZALDIA: "KEPA ANABITARTEREN 100 URTEKO ERRESISTENTZIA" LIBURUAREN EGILEAREKIN	8
📺	Asteazkena 18:30 Sutegiko auditoriumean	VIDAS IRRENOVABLES (BIZITZA EZ-BERRIZTAGARRIAK) DOKUMENTALA ETA EZTABAIDA HERRIKOIA	9
☺	Osteguna 19:30 Sutegiko auditoriumean	HITZALDIA: JOXE MARI ESPARZA	10
☘	Larunbata 13:00 Mikel Laboa plazan	USURBILGO EUSKARALDIA, HAMAIAKOAREN AURKEZPENA	12
🎵	Igandea 19:00 Sutegiko auditoriumean	"LURRETIK LURRERA" KANTALDIA	13
👤	Larunbata 10:30 Aginagako Plazan	SAGARDOA ETA ERRIOA, GURE HISTORIA IBILADIA	26

IKASTAROAK

Osteguna 14:30-16:30 Agerrazpiko baratzetan	ALKARTASUNA KOOPERATIBAREN IKASTAROA: BIOANIZTASUN DEKALOGOA: INTSEKTUEN HOTELAK EGITEKO TAILERRA	10
Ostirala 17:30 Pellaioenean	"EMAKUME-GIZON SUBJEKTUA" TAILERRA HIRUKI LARROXAREN ESKUTIK	11
Asteartea-Ostirala 10:30-12:00 Udarregi ikastolan	HAURREI ZUZENDUTAKO SORMEN TAILERRA: XUT UDABERRIARI KEINU	22-25

DEIALDIA

Apirilak 3-16	UDAJOLAS ETA KIROL EKINTZETAN IZENA EMATEKO EPEA
----------------------	--

2025eko APIRILA

USURBIL Kultura



APIRILAK 6
AZTIA
pieza eszenikoa



APIRILAK 13
LURRETIK LURRERA
kantaldia

EKINTZAK

2


Asteazkena

17:00

Potxoenean

Kafe tertulia: Pantailen erabilerak kezkatzen al zaitu?

Antolatzailea: Hitz Aho guraso elkarte.
Giro atseginean ikasmila desberdinetako gurasoek elkar ezagutu eta informazioa trukatzeko aukera izango da. Haur txikiekin joan daiteke.



5

Larunbata


Egun osoan

Kaxkoan

XII. DANTZA EGUNA

Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.
Goizean VI. Dantzari Txiki *Murixka* eta *Jaldi* talde gonbidatuekin.

11:30 Umeen kalejira udaletxetik abiatuta.
13:00 Umeen emanaldia frontoian.
14:30 Herri bazkaria Askatasuna Plazan.
17:00 Ostolaza eta Larrañaga trikitalariak Artzabalen.
22:00 *Ametz* ikuskizuna frontoian.
Ondoren, *Laket* erromeria Mikel Laboa plazan.
*Bazkaritarako tiketak Artzabalen eros daitezke.



6

Igandea

19:00

Sutegiko auditoriumean

"Aztia" pieza eszenikoa

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.
Sarrerak: 8 €, usurbilkultura.eus webgunean.
Aztia zorientasunaren inguruko mintegi bat antolatu du. Bertan, autolaguntzaz mintzatuko zaio publikoari, zirikatzaile. Jendartean desilura eta desesperantza nagusitzen ari direla dirudien garaiotan, des-desilura izango du mintzagai. "Zorientasuna hasiera besterik ez da" aldarrikatuko du Aztia, hasiera oro zerbaiten amaiera izan daitekeen itxaropenarekin.
Don Inorrez musika taldea eta Metrokoadroka antzerki taldea daude Aztia proiektuaren muinean. Elkarlan honen lehen emaitza urtarrean argitaratu zen diskoa izan zen. Bigarren emaitza, kontzertua eta antzerkia uztartzen dituen pieza eszenikoa. Oholtza gainean umorea eta doinu kutsakorrak izango dira nagusi, musika, antzerki bakarriketa eta butoh dantza uztartuta.
Ainhoa Alberdi eta Oier Guillan aktoreekin batera, Karlos Arancegui, Fernando Neira eta imanól Ubeda musikariak arituko dira taula gainean.



NAFARTARREK ANTOLATUTAKO EKINTZAK

Antolatzailea: Nafartarrak.


APIRILAK 8, ASTEARTEA
Eneko Bidegain: Kepa Anabitareren 100 urteko erresistentzia
Ordua: 19:00 **Non:** Potxoenean.

Eneko Bidegainek Kepa Anabitareren biografia idatzi du. Liburu berri horretan, Euskal Herriko azken 100 urteetako historia politikoa zeharkatzen du, haren bizitzaren kronikaren bitartez. Herriaren askatasunaren aldeko etengabeko borrokan aiantzirik gelditu diren hainbat pasarte, militante, mugimendu eta ideologia gogora ekarriko ditu liburu honen aurkezpenean.



APIRILAK 10, OSTEGUNA
Joxe Mari Esparzaren hitzaldia
Ordua: 19:30 **Non:** Sutegiko auditoriumean.

"Dokumentu berri batzu agertu dira, zeintzuetan adierazten den 1834an Tomas Zumalakarregik Euskal Herri penintsularreko lau probintzien Errepublikak Federala aldarrikatu zuen." Hori da liburu honen haria. Mende horretan zehar saiakera independentistak errepikatu egin ziren, kontakizun espainiar ofizialak esaten digunaren kontra. Euskal unibertsitateek ere kontakizun espainiar berari eusten diote, gure historia eta memoria kontrolatuz eta bahituz, Guardia Zibilak gure hiritar askatasuna kontrolatzen eta bahitzen duen bezalaxe. Etorkizun independentea ukatzen zaion herri orori ezkutatzeko zaio askatasuna berreskuratzeko iraganeko ezein saiakera. Izan ez baginen, ez gara, ez eta izango ere. Kontakizunaren bataila deitzen diogu orain. Foruak, nazio kontzientzia eta klase borroka behin eta berriro azaltzen dira hemeretzigarren mendeko altxamenduetan. Hori ezkutatzeko gure menperatzaileen ardura historikoa da. Argitaratzea, gure betebeharrak morala."



APIRILAK 13, IGANDEA
Claudine Arhancet, Mixel Etxekopar eta Darlene Gijuminag "Lurretik lurrera" kantaldia

Ordua: 19:00 **Non:** Sutegiko auditoriumean.
Sarrerak: 10€ Lizardi liburudendan eta egunean bertan.

Claudine Arhancet eta Mixel Etxekopar (Euskal Herria) eta Darlene Gijuminag (Quebec-eko Mig'mawag autoktonoa.)
2022an Mixel Etxekopar eta Claudine Arhancet zuberotarrak gomit izan dira Montrealeko CMM etxean (Centre des Musiciens du monde). Han artista egonaldiak eta sorkuntzak bultzatzen dituzte, mundu zabaleko musikari-kantarien artean. Sortu zuten LURRETIK LURRE-RA emanaldia. Montrealean izan zen estrena eta Quebecen bigarrena. 2025ean berriz bira bat egingen dute Québec herrialdean eta ondotik Europan izanen dugu Darlene Gijuminag Mig'mawag populuko artistaren hartzeko.
Euskal Herriko Etxepare Institutuak sustatu zuen proiektua, bere "Saison Québec Pays Basque" ekimenaren baitan sartuz, Québecoko herriarekin batean. Kultura topaketa zabalak izan ziren, literatura, zinema, dantza, musika eta hizkuntza ere barne.
Badakigu baina ez oharzten autoktono horiek zer pairatu duten, eta oraindik ere pairatzen, beren izan eta izenaren duintasunez bizitzeko. Lotura oso naturala izan da euskal kulturarekin, bereziki gure kasuan Zuberoako kantu eta musikarekin. Lurrak duen garrantzia, lurrak duen ikara hori da jokoan topaketa hontan. Hortarik izen burua: Lurretik lurrera...



9

Asteazkena

18:30

Sutegiko auditoriumean

Vidas Irrenovables (Bizitza ez-berriztagarriak) dokumentala eta eztabaida herrikoia

Antolatzailea: SORTALDE, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea Koop.S.
Sarrera: doan.
Izen ematea: usurbilkultura.eus webgunearen bidez.
Egilea: Francisco Vaquero, Metáfora Visual ekointzetxea.
Hizkuntza: Gaztelera (azpitoluak euskaraz).

Trantsizio ekosoziala gaur egungo erronkarik handienetakoa dugu: erregaia fosiletan oinarritutako energia sorkuntzatik, berriztagarrietara aldaketa egitea, tokiko beharretara zuzenduta, kudeaketa eta gobernantza komunitarioa oinarri duela. Halaber, energia sorkuntza berriztagarriari mugarik jarri behar al zaie? Berriztagarria eta jasagarria uztartu izateko zeintzuk dira baldintzak?
SORTALDEK, gaur egungo trantsizio ekologikoa ardatz, egiten ari diren makroproiektuen eragin ekosoziala eztabaida mahaira ekarri nahi du.



12

Larunbata

13:00

Mikel Laboa plazan

Usurbilgo Euskaraldia, hamaikakoaren aurkezpena

Antolatzailea: Usurbilgo Euskaraldia batzordea

Badator Euskaraldia! Maiatzaren 15etik 25era, euskararen erabilera aktibatuzko 4. edizioa egingo dugu Usurbilen. Herri-tarrak belarriprest edo ahobizi jokoaren artean aritzeko izena ematera animatu nahi ditugu. Horretarako, genero, adin, herri/auzo, esparru eta bizipen linguistiko anitzeko herritar taldea osatu dugu. Zatoz hamaikakoaren aurkezpena! Gainera, Euskal Herria zeharkatuko duen gune ibiltaria izango dugu gurean, Euskaraldiaren erakusleho gisara (informazioa, izen-ematea, denda...).



26

Larunbata

10:30

Aginagako plazan

Sagardoa eta Errioa, gure historia ibiladia

Antolatzailea: Alkartasuna Usurbilgo baserriarren Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea.
Hizketako gaiaren gidaria: Jakoba Errekondo
Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña.



IKASTAROAK

ALKARTASUNA KOOPERATIBAREN IKASTAROA BIOANIZTASUN DEKALOGOA: INTSEKTUEN HOTELAK EGITEKO TAILERRA

Antolatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo baserriarren Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea, Fruitel, Agerreazpiko Baratzegain Elkarte eta Udarregi ikastola.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.
Noiz: Apirilak 10, osteguna.
Ordua: 14:30-16:30.
Non: Agerreazpiko baratzegain.
Izen-emateak: doan. Alkartasunako telefonoan 943 361114 eta alkartasuna.eus web orrian.
Irakaslea: Mateo Regla, Ingurumen zientzien dibulgazioan aditua.

Nola erakari intsektu laguntzaileak (polinizatzaileak, beste intsektuak garbitzen dituztenak etab.) gure sagastira, baratzera edota lorategira. Agerreazpiko baratzegain, eta Udarregi ikastolako ikasleekin eta etorri nahi duen guztiarekin batera, hain garrantzitsuak diren intsektuentzako hotelak egiteko tailerra burutuko da.



"EMAKUME-GIZON SUBJEKTUA" TAILERRA Hiruki Larroaren eskutik

Antolatzailea: Emakumeon Etxea.
Noiz: Apirilak 11, ostirala.
Ordua: 17:30.
Non: Pelaiotegian.

Emakume eta gizon subjektutasunaren inguruko formakuntza saioa. Egingo den tailer proposamenen, teoria feministak eta queerretan egin diren proposamen desberdinak ikusiko dira, zeintzuek tailerrean parte hartuko duten gizon, emakume zein pertsona ez binarioen arteko botere harremanen lanketa ahalbidetuko duten.



HAURREI ZUZENDUTAKO SORMEN TAILERRA XUT Udaberriari keinu

Antolatzailea: Hitzahoa Elkarte.
Adina: 7 eta 12 urte tartekoei.
Noiz: Apirilak 22tik 25era.
Ordua: 10:30-12:00.
Non: Ikastolan.
Prezioa: 50€.
Izen ematea: 1etik-18ra biak barne 652702237 telefonora deitu edo ganbara.sormentailerra@gmail.com edo hitzaho@udarregi.eus.

Naturarekin bat eginez, udaberria interpretatuko dugu irudiz eta hitzez. Banakako zein taldeko ariketak egingo ditugu hiru dimentsioetako irudiak sortuz. Tamainu handian margotu eta idatziko dugu. Animalia eta landare desberdinak azalduko dira bertan. Gariaiari loturiko soinu eta onomatopoiak ere jantziko dute lana. Bukatzeko, ipui ezberdinak sortuko ditugu.

